

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

325/2015 Foru Agindua, irailaren 1ekoa, behin betiko onartzen duena Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren aldaketaren espedientea, II. etxadiko 1-1083 y 1-1084 lurzatien antolamendua aldatzearen gainekoa

I. AURREKARIAK

Lehena. Abenduaren 26ko 555/2014 Foru Aginduaren bidez, eten egin zen Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren aldaketaren espedientearen behin betiko onarpena, Kanpezuko udalerriko II. etxadiko 1-1083 y 1-1084 lurzatien antolamendua aldatzearen gainekoa.

Bigarrena. 555/2014 Foru Agindu horrek berak ezarri zuen, kontuan hartuta adierazitako baldintzak ez zirela funtsezkoak, igor zedila espediente zuzenean Foru Aldundira behin hutsak konpondu ostean, berriro jendaurreko izapidea egin beharrik gabe, haren betebeharreko tasuna deklaratzeko eta izapideak egiteko eta argitaratzeko.

Hirugarrena. 2015eko ekainaren 9an eta 21ean, espedientearen testu bategina sartu zen Aldundiaren Erregistroan.

II. OINARRIAK

Aurkeztutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da bete direla foru agindu horretan ezarritako baldintzak.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehena. Behin betiko onartzea Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren aldaketaren espedientea, Kanpezuko udalerriko II. etxadiko 1-1083 y 1-1084 lurzatien antolamendua aldatzearen gainekoa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan; horretarako bi hileko epea izango da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Gasteiz, 2015eko irailaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSÉ ANTONIO GALERA CARRILLO